

Euskal AEko esportazioak hobetu egin dira 2021eko otsailean, eta % 4,7 egin dute gora

Susperraldi hori hiru lurraldeetara zabaldu da, eta Bizkaia izan da buru, % 9,3arekin, ondoren Gipuzkoa % 2,1arekin eta, azkenik, Araba % 1,8arekin

Euskal AEko ondasunen **esportazioek** (1.991,6 milioi euro) % 4,7ko igoera izan zuten 2021eko otsailean, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, Eustatek landu dituen datuek erakusten dutenez. Energiarekin zerikusirik ez dutenak % 5,2 igo ziren eta energiaren esportazioak % 8,8 jaitsi ziren.

Bestalde, **inportazioek** (1.433,3 milioi) % 7,5 egin zuten behera, energiarekin erlazionatutako produktuak % 21,7 jaitsi baitziren, eta energiarekin zerikusirik ez dutenak % 3,3.

2021eko otsailean merkataritza-saldoa berriz ere positiboa izan zen (558,2 milioi), eta 138,9ko estaldura-tasa sortu zuen, 2020ko otsailean erregistratutakoa baino ehuneko 16,2 puntu handiagoa.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2021 Otsaila

	ESPORTAZIOAK			IMPORTAZIOAK		
	Otsaila			Otsaila		
	2020	2021	Δ %	2020	2021	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	1.902.315	1.991.576	4,7	1.549.824	1.433.336	-7,5
PRODUKTU ENERGETIKOAK	68.849	62.774	-8,8	357.064	279.599	-21,7
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.833.467	1.928.801	5,2	1.192.760	1.153.737	-3,3
URTEKO METATUA	3.870.877	3.716.208	-4,0	3.123.666	2.795.413	-10,5
PRODUKTU ENERGETIKOAK	284.128	134.810	-52,6	798.577	552.163	-30,9
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	3.586.749	3.581.398	-0,1	2.325.089	2.243.250	-3,5
ARABA / ÁLAVA						
HILEAN GUZTIRA	612.926	623.807	1,8	376.393	346.011	-8,1
URTEKO METATUA	1.229.405	1.175.793	-4,4	700.949	638.474	-8,9
BIZKAIA						
HILEAN GUZTIRA	711.753	778.010	9,3	834.137	742.516	-11,0
URTEKO METATUA	1.495.572	1.448.195	-3,2	1.768.643	1.499.552	-15,2
GIPUZKOA						
HILEAN GUZTIRA	577.637	589.760	2,1	339.294	344.809	1,6
URTEKO METATUA	1.145.900	1.092.220	-4,7	654.075	657.386	0,5

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Hiru lurralde historikoek balio negatiboak alde batera utzi dituzte hilabete honetan, eta hazkunde-ehuneko desberdinak izan dituzte: % 1,8 Arabak, % 2,1 Gipuzkoak eta % 9,3 Bizkaiak. Energiarekin zerikusirik ez duten esportazioak % 1,7 hazi dira Araban, % 2,1 Gipuzkoan eta % 11,3 Bizkaian. Energia arloko esportazioek Bizkaian soilik egin dute behera, % 9,5.

Arabak, esportazioak “Garraio-materialean” kontzentratzen dira (guztizkoaren % 62,9), % 6,5eko hazkundearekin; “Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak” ere % 16,1 igo dira; “Metalak eta haien manufakturak” (-% 8,1) eta “Plastikoak, kautxua eta haien manufakturak” (-% 24,9), berriz, behera egin dute, hilabete honetako lau garrantzitsuenak aipatzearen.

Gipuzkoan gora egin dute “*Material, makina eta aparatu elektrikoen*” irteerek (% 8,4) eta “*Metalen eta haien manufakturenak*” (% 11,0), eta % 21,1 egin dute atzera “*Garraio-materialaren*” esportazioek, hiru arantzel-sekzio nabarmenenak aipatzearren.

Bizkaiko esportazioak beste lurraldeen joera bera du, baina nabarmenagoa, % 9,3ko igoerarekin, “*Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak*” (% 12,1), “*Landare-erresumako produktuak*” (% 484,2) eta “*Elikagaien industriako produktuak, edariak eta tabakoa*” (% 115,0) esportazioen ondorioz; aitzitik, “*Produktu mineral eta energetikoen*” esportazioak % 8,8 jaitsi dira, eta baita “*Garraio-materialarenak*” ere (-% 5,8).

2021eko otsailean, bost herrialde (Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Belgika eta Italia) dira Euskal AEko bezero nagusiak, esportazio guztien % 52,3 (1.042,3 milioi) berenganatuta. Horietako lau EB27koak dira, eta erakunde horrek biltzen du esportazio guztien % 63,7; ehuneko hori % 71,4koa zatekeen EB28 zaharraren kasuan.

Belgikara egindako esportazioak % 96,0 igo dira, Erresuma Batura egindakoak % 29,3, Frantziara egindakoak % 12,8, Italiara egindakoak % 3,4 eta Alemaniara egindakoak % 2,9; Portugalera egindakoak, ordea, % 9,1 jaitsi dira, eta Herbehereetara egindakoak % 24,0. Hilabete honetan, Estatu Batuetara egindako salmentak % 13,2 jaitsi dira, eta baita Mexikora (-% 3,2) eta Txinara (-% 0,3) egindakoak ere. Errusia (% 31,6) eta Turkia (% 31,8) era positiboan nabarmentzen dira esportazio-bolumen handienekoen artean.

Inportazioen erdia baino gehiago EB27tik etorri dira (% 55,3), eta % 61,4ra iritsiko ziren EB28 desagertuaren kasuan. Europako herrialde garrantzitsuenen artean, Erresuma Batua (% 160,7) eta Belgika (% 7,7) nabarmendu dira. Frantziak maila positiboari eutsi dio (% 0,2), eta, alde negatiboan, Alemania dago (-% 5,6), eta, batez ere, Herbehereak (-% 47,8). Munduko gainerako herrialdeei dagokienez, Errusian (-% 50,9), Mexikon (-% 37,2) eta Estatu Batuetan (-% 47,5) jatorria duten inportazioak ere jaitsi egin dira. Txinako inportazioak ere negatiboak dira (-% 0,3), baina aurreko urtekoak baino egonkorragoak.

2021eko otsailean komertzializatutako produktuak

Xehetasunetara etorriz, ikusten da 2021eko otsailean hamar **Arantzel Partida** nagusiek esportazioen % 40,9 bildu zutela, 814,3 milioi euroko balio bateratuarekin.

Aipatzekoak dira “*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*” (aurreko urteko hilabete berean baino % 16,5 eta 20,9 milioi gehiago), “*10 pertsona baino gutxiagoko automobilak*” (% 6,9 eta 14,1 milioi) eta “*Txorrota-artikuluak, balbulak eta hoditerietarako antzeko organoak, galdarak eta gordailuak barne*” (% 32,4 eta +12,7 milioi).

Aldiz, behera egin dute “*Petrolio-olio finduek*” (-% 16,8, 9,9 milioi gutxiagorekin) eta “*Burdinazko edo altzairuzko hodi eta profil hutsek, soldadurarik gabekoek*” (-% 36,2 eta -14,6 milioi) eta “*Eskuko erremintetarako edo makina-erremintetarako tresna trukagarriak*” (-% 47,5 eta -13,7 milioi).

Hilabete honetan, 25 arantzel partida nagusietatik, bost automobilgintzaren sektorean daude (horietako lau lehen posizioetan), eta urte arteko % 3,4ko igoerarekin, aurreko urteko hilabete berean baino 20,3 milioi gehiago esportatzea lortu dute.

Euskal AEko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). 2021eko otsaila

	2020	2021	2021 %	2021/2020 (%)
Guztira	1.902.315	1.991.576	100	4,7
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	203.629	217.777	10,9	6,9
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	126.600	147.502	7,4	16,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	152.780	140.361	7,0	-8,1
Kautxuzko pneumatiko berriak	89.444	80.752	4,1	-9,7
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	39.242	51.945	2,6	32,4
Petrolioaren olio finduak	58.879	49.007	2,5	-16,8
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	34.438	39.652	2,0	15,1
Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	16.005	29.796	1,5	86,2
Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	24.005	29.525	1,5	23,0
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafak eta tirak	27.633	27.981	1,4	1,3
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	40.430	25.803	1,3	-36,2
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	16.113	22.449	1,1	39,3
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiatzaileak...	16.640	21.181	1,1	27,3
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	17.934	20.678	1,0	15,3
Kobreko zakarrak eta hondakinak	12.187	19.652	1,0	61,2
Kateak eta horien galdaketako, burdinazko edo altzairuzko zatiak	24.379	19.245	1,0	-21,1
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	18.061	18.569	0,9	2,8
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak...	15.055	18.246	0,9	21,2
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	16.462	17.968	0,9	9,2
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	15.307	17.684	0,9	15,5
Makina erremintatarako parteak eta osagarriak	12.772	17.284	0,9	35,3
Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	7.813	17.173	0,9	119,8
Ardoa, mahats freskoarena	14.532	16.193	0,8	11,4
Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	14.352	15.874	0,8	10,6
Eskuzko erremintatarako tresna trukagarriak edo makina-erremintatarako	28.811	15.137	0,8	-47,5

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Inportazioen kasuan, eta arantzel partidei dagokienez, pisu espezifiko handiena duenak, “*Petrolio-olio gordinak edo mineral bituminosoarenak*” (guztizkoaren % 12,7), % 41,2ko atzerakada izan du, 2020ko otsailean baino 127,5 milioi gutxiagorekin, eta joera hori 25 arantzel partida nagusietatik 8k baino ez dute partekatzen; horien artean, “*Enbolo, diesel edo erdi-diesel motorrak*” (-% 23,9 eta -12,5 mill.) eta “*Soja babak, baita hautsiak ere*” (-% 33,2 eta -9,9 milioi) nabarmentzen dira. Bestalde, “*Petrolio-olio finduak*”, hilabete honetan gehien inportatu den bigarren produktua, nabarmen igo dira (% 116,6, +41,9 milioirekin) eta baita “*Galdaketako, burdinazko edo altzairuzko txatarra*” ere (% 61,3 eta +12,6).

ARABA. 2021eko otsaileko esportazioak

Arabako Lurralde Historikotik egindako esportazioak % 1,8 egin du gora. Hamar partida nagusietatik (guztizkoaren % 74,1) hiruk baino ez dituzte hazkunde-tasa negatiboak erakutsi, eta, duten garrantziagatik, “*Kautxuzko pneumatiko berriak*” (-% 46,7 eta -17,4 milioi) eta “*Burdinazko edo altzairuzko hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabekoak*” (-% 50,6 eta 11,6 milioi gutxiago) nabarmentzen dira.

Aitzitik, gainerakoek joera positiboan jarraitu dute, eta automobilaren sektoreari lotuta dauden ranking esportatzaileko lehen biak nabarmendu dira: “*10 pertsona baino gutxiagoko automobilak*” (% 5,6 eta +11,3 milioi) eta “*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*” (% 16,4 eta +20,7 milioi).

Arabako lurralde historikoko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). 2021eko otsaila

	2020	2021	2021 %	2021/2020 (%)
Guztira	612.926	623.807	100	1,8
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	201.643	212.990	34,1	5,6
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	126.472	147.157	23,6	16,4
Automobilentzako zati eta osagarriak	23.233	22.087	3,5	-4,9
Kautxuzko pneumatiko berriak	37.278	19.877	3,2	-46,7
Ardoa, mahats freskoarena	13.533	14.156	2,3	4,6
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	11.106	11.543	1,9	3,9
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	23.006	11.360	1,8	-50,6
Garraiatzeko edo ontziratzeko beirazko ontziak	8.186	9.276	1,5	13,3
Kobreko zakarrak eta hondakinak	4.908	7.605	1,2	55,0
Plastikozko hodiak eta hodien osagarriak (junturak, ukondoak, lotuneak, errakoreak)	4.298	5.885	0,9	36,9

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

BIZKAIA. 2021eko otsaileko esportazioak

Bizkaian esportazioak % 9,3 igo dira, eta lehenengo 10 partidetatik lauk joera negatiboa erakusten dute: % 17,6 eta 10,3 milioi gutxiago jaisten diren “Petrolio-olio finduak”, “Eskuko erremintetarako edo makina-erremintetarako tresna trukagarriak” (-% 49,4 eta -13,6 milioi), “Kateak eta horien zatiak, galdaketakoak, burdinazkoak edo altzairuzkoak” (-% 21,6 eta -5,2 milioi) eta “Ibilgailu automobilen zatiak eta osagaiak” (-% 0,8 eta -0,5 milioi).

Alderantziz, honako hauek hazi egin dira: “Kautxuzko pneumatiko berriak” (% 16,5 eta +8,6 milioi), “Txorrotar-artikuluak, balbulak eta hoditerietarako antzeko organoak, galdarak eta gordailuak barne” (% 67,2 eta +8,2 milioi) eta “Aduana arantzelean berariaz jasota ez dauden merkantziak” (% 86,3 eta +12,5 milioi).

Bizkaiko lurralde historikoko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). 2021eko otsaila

	2020	2021	2021 %	2021/2020 (%)
Guztira	711.753	778.010	100	9,3
Kautxuzko pneumatiko berriak	51.918	60.503	7,8	16,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	60.882	60.372	7,8	-0,8
Petrolioaren olio finduak	58.586	48.252	6,2	-17,6
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	14.498	27.014	3,5	86,3
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafak eta tirak	22.704	22.931	2,9	1,0
Txorrotetarako artikuluak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	12.187	20.382	2,6	67,2
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	14.509	19.020	2,4	31,1
Kateak eta horien galdaketako, burdinazko edo altzairuzko zatiak	23.990	18.818	2,4	-21,6
Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	14.352	15.873	2,0	10,6
Eskuzko erremintetarako tresna trukagarriak edo makina-erremintetarako	27.542	13.923	1,8	-49,4

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

GIPUZKOA. 2021eko otsaileko esportazioak

Gipuzkoak, Arabak bezala, 3 partida baino ez ditu negatiboan lehenengo 10 partiden artean, eta, horietatik, esportazio-rankingeko garrantzitsuena nabarmentzen da, “Ibilgailuen zatiak eta osagarriak”, % 15,7ko jaitsierarekin (-10,8 milioi).

Joera positiboa dute “Trenbideetarako edo antzekoetarako ibilgailuen zatiak” (% 52,7 eta +7,1 milioi), “Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilek” (% 18,0 eta +5,7 milioi) eta “Makina-erremintetarako zati eta osagaiak” (% 45,3 eta +4,6 milioi).

Gipuzkoako lurralde historikoko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). 2021eko otsaila

	2020	2021	2021 %	2021/2020 (%)
Guztira	577.637	589.760	100	2,1
Automobilentzako zati eta osagarriak	68.665	57.903	9,8	-15,7
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	31.769	37.486	6,4	18,0
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	25.612	30.142	5,1	17,7
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	13.480	20.589	3,5	52,7
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiatzaileak...	14.943	17.793	3,0	19,1
Hariak, isolatutako eroale elektrikoko kableak eta zuntz optikoko kableak	14.970	16.362	2,8	9,3
Makina erremintatutako parteak eta osagarriak	10.160	14.763	2,5	45,3
Burdina edo altzairuzko gainerako enbaturak	14.791	14.668	2,5	-0,8
Ontziak eta paketatutako aparatuak garbitzeko, betetzeko, itzeko, etiketatutako makinak	12.014	14.062	2,4	17,0
Metal arruntzeko giltzarapo, sarraila, morroilo eta giltzak	15.545	13.672	2,3	-12,0

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

URTEKO METATUA (2021EKO LEHEN BI HILABETEAK): kanpoko saldoak 920,8 milioi euroko superabita erakusten du, eta estaldura-tasa % 132,9an dago

2021eko lehen bi hilabeteetarako eta Euskal AEko **esportazioetarako**, % 4,0ko jaitsiera erregistratu da aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, hau da, 154,7 milioi euro gutxiago. Aldi horretako esportazio-kopurua 3.716,2 milioiokoa da, eta kopuru horri ekarpen handiena Bizkaia egiten dio, 1.448,2 milioirekin (guztizkoaren % 39,0), ondoren Araba (1.175,8 milioi) eta, azkenik, Gipuzkoa (1.092,2 milioi).


Bizkaiko esportazioak EAEko garrantzitsuenak dira, nahiz eta urte batetik besterako jaitsiera % 3,2koa izan (2020an baino 47,4 milioi gutxiago). Araban jaitsiera % 4,4koa izan da (-53,6 milioi) eta Gipuzkoan % 4,7koa (-53,7 milioi). Esportatutako produktu mota kontuan hartuta, egiaztatu da "Energiarekin erlazionatutako produktuen" (149,3 milioi gutxiago) eta "Energiarekin zerikusirik ez duten produktuen" (-5,4 milioi) esportazioek behera egin dutela.

Euskal AE osorako **inportazioen** metatua, aztertutako aldian, 2.795,4 milioi euro ingurukoa da. Kopuru hori urteen artean alderatuz gero, ikusten da 2020ko epe berean erregistratutakoa baino 328,3 milioi txikiagoa dela. % 10,5eko jaitsiera horren arrazoa da, hein handi batean, Bizkaian (1.499,6 milioiko inportazioak) % 15,2ko beherakada izan dela aldi horretan, hau da, aurreko urteko aldi berean baino 269,1 milioi gutxiago. Araban ere inportazioek behera egin dute (-% 8,9 eta -62,5 milioi), eta Gipuzkoan, aldiz, % 0,5 eta 3,3 milioi igo dira; inportatutakoaren balioa 638,5 eta 657,4 milioi eurokoa izan da, hurrenez hurren, bi lurralde horietan. "Energiarekin erlazionatutako produktuen" inportazioa % 30,9 jaitsi da, eta "Energiarekin zerikusirik ez duten produktuen", berriz, % 3,5.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak 920,8 milioi euroko saldo positiboa izan du 2021eko lehen bi hilabeteetan, hau da, aurreko urteko aldi berean erregistratutakoa baino 173,6 milioi handiagoa izan da. Horri esker, % 132,9ko estaldura-tasa onari eutsi zaio.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Milioi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62